

MUK 12th CIRP Conference on Modelling of Machining Operations arrakastatsua antolatu du

2009/05/14

CIRPEK (The International Academy for Production Engineering) diruz lagundutako konferentzia 2009ko maiatzaren 7 eta 8an egin zen Donostiako Kursaal jauregian. Ekitaldi honi esker, Mondragon Unibertsitateak CIRPERen begirunea jaso du prozesuen modelizazio arloan erakutsi duen gaitasunagatik. Arlo honetan Goi Eskola Politeknikoak 1999tik dihardu lanean eta munduan erreferente bilakatu da.



Pedro J. Arrazola, konferentziako presidentea eta Mondragon Unibertsitateko ikertzailea denak esan du, konferentziak arrakasta itzela izan duela. Alde batetik, asistentzia errekorrak gainditu direlako, 27 herrialdeetatik etorritako 205 lagun elkartu baitira eta beste alde batetik, maila zientifikoa oso altua izan delako. Bukatzeko aipatu du bertaratutako guztien espektatibak bete dituela eta oso gustura geratu direla.

Konferentzia urtero egin izan da, Atlantian (AEB) hasi zenetik 1998an. 2008an NIST Gaithersbourg (AEB) izan zen. Ekitaldiaren beste egoitza batzuk honako hauek izan dira: Nantes (Frantzia) 1999an, Delft (Holanda) 2000an, Sidney (Australia) 2001ean, West Lafayette (EEBB) 2002an, Hamilton (Canada) 2003an, Cluny (Frantzia) 2004an, Chemnitz (Alemania) 2005ean, Bled (Eslovenia) 2006an, Reggio-Calabria (Italia) 2007an.

Konferentzian landu diren gaiak asko izan dira, mekanizazio tailerretan enpresek egunero aurre egin behar izaten dieten prozesu eta aspektuen eragin die:

- Geometria definituko prozesuen modelizazioa, 2D eta 3D.
- Abiadura handiko mekanizazioa eta gogorreko mekanizazioa
- Mekanizazioko materialen eta alderdi tribologikoen karakterizazioa
- Doitasunezko mekanizazioa eta mikromekanizazioa
- Artezketa eta prozesu ez konbentzionalak
- Modelizazioa multifisikoa eta multieskalarra
- Ebaketaren eta egonkortasunaren dinamika
- Monitorizazioa eta diagnostikoa
- Mekanizazioa optimizatzeko metodoak, erabiliz adimen artifizialeko teknikak, neurona sareak, algoritmo genetikoak...
- Modelizazio metodo berriak.

Konferentzia honetan erakutsitako aurrerapenek konplexuak diren arazoak konpontzeko modelizazioak eskaintzen dituen aukerak erakusten dituzte, eta ondorioz, konplexutasun eta balio erantsi handiagoko produktuak ekoizteko aukerak ematen ditu mekanizatuen sektorean

Informazio gehiago: <http://www.mondragon.edu/12cirpcmmo/>

E-maila: 12cirpcmmo@eps.mondragon.edu